

PROIEKTU ARTISTIKOAK EKOITZI ETA MONTEHERMOSO KULTURUNEAN ERAKUSTEKO 2026KO DEIALDIA

SARRERA

Montehermoso Kulturuneak konpromiso argia du sorkuntza garaikidea eta arlo honetan lan egiten duen kolektibo artistikoa babesteko, eta, horretarako, hainbat jarduera-ildo garatzen ditu haien proiektuak sustatu, bultzatu eta zabaltzeko.

Testuinguru horretan egiten du deialdi hau, proiektuak ekoizteko laguntza, hautatutako lanen garapena eta ondorengo zabalkundea errazteko.

Banaka nahiz taldean beren lanak aurkezteko aukera eman nahi zaie nagusiki artista lokalei, arte eta kultura garaikidea sustatu eta herritarrengana hurbiltzen duten ekintzen bitartez.

OINARRIAK

Lehena: Deialdiaren xedea

Montehermoso Kulturuneak deialdi hau egiten du, sorkuntza artistiko garaikideko proiektuen ekoizpena ahalbidetzeko, eta horien ondorengo erakusketa Zentroko aretoetako batean bermatzeko.

Horretarako, gehienez LAU sorkuntza artistikoko proiektu hautatuko dira, eta Montehermoso Kulturunean erakutsiko dira 2026-2027 aldian.

Hautatzen diren proiektuak kontratatu egingo ditu Gasteizko Udalak, Montehermoso Kulturunearen 2026eko aurrekontuko 231205.3332.22622 partidaren kontura.

Bigarrena: Eskatzaileen betebeharrak

Proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte artista izaera duten pertsona fisiko edo juridikoek, banaka nahiz kolektibo gisa, artearen eta sorkuntza artistiko garaikidearen esparruan lanak garatzen badituzte, eta Montehermoso Kulturunean beren proiektua erakusteko asmoa badute.

Artista edo kolektibotzat joko dira sorkuntza eta ikerketa artistiko garaikideari lotutako lan eta proposamenekiko interes sendoa argi eta garbi erakusten duen ibilbidea dutenak.

Eskabidea nortasun juridikorik gabeko kolektibo batek aurkezten badu haren kide guztiak identifikatu beharko dira, eta jakinarazpenetarako ordezkari bat izendatuko dute.

Jarduteko erabateko gaitasuna duten eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez duten artistek eta kolektiboek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak.

Deialditik kanpo geratuko dira:

- Adierazitako dokumentazioa ezarritako epeetan aurkezten ez duten parte-hartzaileak.
- Arestian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak.

Proiektu artistikoek argitaratu gabeak izan beharko dute, eta adierazitako epeetan aurkeztu beharko dira.

Hirugarrena: Laguntza emateko prozedura

Garatuko den proiektua hautatzeko, alderatu egingo dira aurkeztutako proposamenak, balioespen-irizpide hauek aintzat hartuta:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Proiektuaren interes artistikoa eta kalitatea	10
Proiektuaren koherentzia eta bideragarritasuna, aurkeztutako dosierraren eta dokumentazio osagarriaren argitara: helburuak, gauzatzeko denbora eta baliabideak	5
Proiektua aurkezten duen egilearen edo taldearen prestakuntza eta ibilbide profesionala	5
PUNTUAK, GUZTIRA	20

Hautaketa-batzordeak eskatzaileak elkarrizketatu ahal izango ditu, edo haiei buruzko informazio osagarria eskatu, aurkeztutako proposamenak hobeto ebaluatzeko.

Hautaketa-batzordearen iritziz, proiektuetako batek ere ez badu gutxieneko kalitate-maila lortzen, deialdia esleitu gabe utzi ahal izango du, partzialki edo osorik.

Laugarrena: Proiektuak baloratu eta hautatzeko batzordea

Proiektuak baloratu eta hautatzeko batzordea Montehermoso Kulturuneko buruak osatuko du, lehendakari gisa, eta, gutxienez, zabalik dagoen deialdiaren arloan gaitasuna eta prestakuntza duten bi profesional independentek.

Eskatzaile guztiei telematikoki jakinaraziko zaizkie ebazpenak.

Bosgarrena: Zenbatekoa eta ordainketa

Deialdi honetara bideratutako gehieneko aurrekontua 28.000,00 eurokoa izango da, 2026eko ekitaldiko 231205.3332.22622 partidaren kontura.

Proiektu bakoitzeko gehieneko diru-kopurua 7.000,00 eurokoa izango da. Zuzkidura horren barruan sartuko dira ordainsariak, komisarioaren testuak (halakorik balego), baita obraren ekoizpenetik eta garraioaz eratorritako gastuak ere. Bidaiak, joan-etorriak, mantenua eta aseguru medikoa artistaren kontura izango dira.

Kontratazio-dosier bana tramitatuko da pertsona edo entitate hautatu bakoitzeko, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren ildotik. Pertsona edo entitate eskatzaileak ezingo du izan inolako zorrik Udalarekin. Ofizioz eskatuko du horren gaineko ziurtagiria Kultura Zerbitzuak. Zorrik izanez gero, hala jakinaraziko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta ez da faktura ordainduko harik eta egoera konpondu arte.

Adierazitako diru-kopuruak barne hartuko ditu zergak, behar izanez gero egingo den PFEZaren atxikipena gorabehera. Zenbateko hori artistak adierazitako kontuan sartuko da, kontratua sinatu eta dagokion faktura formalizatu eta osatu ondoren.

Kopuru ekonomiko horretaz gain, Montehermoso Kulturuneko azpiegiturak, tresneria teknikoa, aholkularitza eta giza baliabideak jarriko dira hautatutako artisten eskura.

Hala ere, hautatutako pertsonak edo erakundeak Zentroari atxikita ez dauden giza baliabideak eta/edo ekipo teknikoak erabiltzen baditu, zuzkidura ekonomiko gisa balioetsi eta kontabilizatuko da, proiektu bakoitzerako laguntzari dagozkion 7.000,00 euroko kopuruaren barruan.

Montehermoso Kulturuneak, gainera, hautatutako lau proiektuen erakusketaren katalogo estandar bat argitaratuko du, eta bere gain hartuko du esku-orria eta identifikazio-binilo bat egin eta erakusketaren sarreran jartzeko ardura.

Gainera, Montehermoso Kulturuneak bideo profesionala grabatu ahal izango du aukeratutako artistekin, helburu didaktiko eta informatiboekin. Bideo-gida

horretan, ikusgai jarriko den proiektua azalduko dute. Grabatzeko unea Zentroaren eta artistaren artean adostuko da.

Seigarrena: Aurkeztu beharreko agiriak

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.1.-Parte hartzeko eskaera, eredu normalizatuan, Gasteizko Udalaren webgunean eskuragarri dagoen eskaera-orri ofizialaren bidez: Vitoria-Gasteizko Udala – Montehermoso Kulturuneko proiektu artistikoen deialdia – Egoitza Elektronikoa – vitoria-gasteiz.org

Eskatzailea legeak aurreikusitako edozein eratako legez eraturako elkarte, sozietate edo kolektiboa bada, eskaera erakundearen izenean aurkeztuko da. Halaber, eskaerarekin batera aurkezten den dokumentazioan zehaztuko da proiektua egile gisa gauzatuko duten erakundeko kideen zerrenda xehatua.

1.2.- Ziurtagiriak honako hauek egiaztatzeko: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez duela.

1.3.- Eskatzailea pertsona fisikoa denean: indarrean dagoen NANaren kopia.

1.4.- Eskatzailea pertsona juridikoa denean: IFKren kopia eta/edo eratze-eskitura edo eratze-dokumentua, estatutuak edo fundazio-akta.

1.5.- PDF formatuko artxibo 1, honako informazio hau jasoko duena:

- Eskatzaile den egilearen edo kolektiboaren ibilbidea, azkenaldian egindako lanen eta/edo aurkeztutako proposamenarekin lotutako lanen dokumentazioa barne.
- Proiektuaren izenburua.

1.6.- PDF formatuko artxibo 2, honako informazio hau jasoko duena:

- Aurkeztutako proiektuaren deskribapena eta justifikazioa (gehienez 2.500 hitz).
- Gehienez 2.500 hitzeko memoria teknikoa, honako eduki hauek jasoko dituena:
 - o Proiektua gauzatzeko aurreikusitako egutegia.

o Behar tekniko espezifikoak.

o Aurrekontu xehatua, proiektuaren ekoizpenari dagokiona, aurreikusitako ekoizpen-gastu guztiak eta, hala badagokio, beste finantzaketa-iturri batzuk edo finantzaketa propioa izan dezaketen kontzeptuak zehaztuz.

o Proiektuari buruzko edo harekin lotutako irudiak, audioak eta bideoak (gehienez 10). Eduki horiek interneteko esteken bidez aurkez daitezke.

Zazpigarrena: Eskabideak aurkezteko epea.

Proiektuak aurkezteko epea **2026ko apirilaren 15ean amaituko da, 23:59an (Europako Ordu Zentrala – CET).**

Epe horretatik kanpo ez da proiekturik edo dokumentazio osagarriarik onartuko, salbu eta antolatzaileek iragartzen badute oinarri hauetan zehaztutako epemuga luzatuko dela.

Eskabideak aurkeztea:

- Eskabideak formatu digitalean aurkeztu beharko dira Gasteizko Udalaren Egoitza Elektronikoaren bidez, edo aurrez aurre Udal horretako Herritarren Arretarako Bulegoen Sarean.
- Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 eta 16.5 artikuluetan aurreikusitako edozein modutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Zortzigarrena: Deialdia ebaztea

Hautaketa-batzordeak deialdi honetako 3. atalean zehaztu diren irizpideak aintzat harturik aztertu eta ebaluatuko ditu aurkezten diren eskabideak eta agiriak. Telematikoki jakinaraziko zaie hautatuak izan diren ala ez deialdira aurkeztu diren pertsona edo erakunde guztiei.

Bederatzigarrena: Jarraipen-batzordea

Jarraipen-batzorde bat eratu ahal izango da, eta hura arduratuko da proiektua behar bezala garatzen den ebaluatzeaz.

Batzorde horrek behar adina bilera eskatu ahal izango ditu, kontratuan jasotzen diren zehaztapen eta betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Halaber, batzorde horri dagokio kontratua gauzatzeko orduan planteatzen diren egokitzapenak eta aldaketa-proposamenak baimentzea, eta proiektuaren kanpo-komunikazioa gainbegiratzea.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, laguntza kendu ahal izango da, batzordeak txostena egin ondoren.

Hamargarrena: Onuradunaren betebeharrak.

Deialdi honetan hautatzen den proiektuaren titular den pertsona edo entitateak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a_ Hautaketa-batzordearen erabakia onartzekoa.
- b_ Proiektua deialdian zehazten den epean eta aurreikusten diren baldintzetan gauzatzekoa. Montehermoso Kulturuneak hartuko du proiektua muntatzeko, aurkezteko eta desmuntatzeko datei buruzko azken erabakia. Era berean, proiektua erakutsiko den aretoa aukeratuko du.
- c_ Gehienez hamar eguneko epean, onartzen duela idatziz berrestekoa. Hala berretsi ondoren, Montehermoso Kulturunea harremanetan jarriko da hautatuetako bakoitzarekin, kontratua sinatu eta hori gauzatzeko berriazko klausulak finkatze aldera.
- d_ Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada, horren berri idatziz ematea.
- e_ Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatekoa.
- f_ Utzitako leku eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Montehermoso Kulturuneko arduradunek ematen dizkioten arauak betetzekoa.
- g_ Proiektua adostutako epean eta baldintzetan gauzatzekoa —bestela, uko egin beharko dio laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badu, itzuli—.
- h_ Obra, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakustekoa, harik eta Montehermoso Kulturuneak emandako jarraibideen arabera erakusten den arte.
- i_ Erakusketa muntatzeko, bideoa grabatzeko eta abar, hitzartutako egunetan Montehermoso Kulturunera joatekoa.
- j_ Proiektua aurkezteko prentsaurrekoan eta erakusketaren inaugurazioan parte hartzekoa.
- k_ Proiektuaren komunikazio egokirako beharrezko egokitzen diren informazioa eta dokumentazioa ematekoa, eta, behar izanez gero,

proiektuan ekoizten diren irudiak jendaurrean erreproduzitu eta erakusteko eskubidea Gasteizko Udalari lagatzekoa. Ildo horretatik, Gasteizko Udalak proiektuaren erakusketa Montehermoso Kulturunean dagoeneko erreportaje fotografiko edo bideografikoa egin ahal izango du, zeinaren helburu bakarrak dokumentazioa, komunikazioa eta katalogoa egitea izango baitira. Erreportaje hauek ez zaizkio ezein artistari lagako argazkilariaren baimenik gabe. Erreportaje hauetan interesa duen artistak harremanetan jarri beharko du argazkilariarekin. Bestalde, artistak idatziz adieraziko du VEGAPEko bazkidea den.

- l_ Bere izen-abizenak komunikabideetan zein Gasteizko Udalaren eta Montehermoso Kulturunearen webguneetan eta sare sozialetan argitaratzeko baimena ematekoa.
- m_ Hautatutako obraren bizitza osoan zehar, eta haren ustiapen edo komunikazioko edozein erabilera edo egintzatan, artistak adierazi beharko du Montehermoso Kulturunearen laguntzari esker egin dela obra, Proiektu Artistikoen Ekoizpenari Laguntzeko deialdiaren esparruan, eta Montehermoso Kulturunearekiko lankidetzaren aipamen zehatza eta haren logotipoa jaso beharko ditu.
- n_ Programa bukatu ondoren, bi hilabeteko epean, egindako lanaren oroitidazkia aurkeztekoa —edukiak kontratuan zehaztuko dira—.
- o_ Artistek deialdi honen xedearekin zerikusia duten beste jarduera batzuetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, Montehermoso Kulturuneak horretarako dei egiten badie.

Hamaikagarrena: Dokumentazioa itzultzea.

Hautatu gabeko proiektuak itzuli egingo dira proiektuaren titularrak hala eskatuz gero, erabakiaren berri jakinarazi ondorengo HOGETA HAMAR egun naturaletan. Denbora hori igarotzen delarik, gainerako proiektuak txikitu egingo dira.

Hamabigarrena: Oinarriak interpretatu eta onartzea.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuz gero, Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak ebatziko ditu.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da horiek bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Argibideak:

Montehermoso Kulturunea.
Frai Zacarias Martinez kalea, 2
01001 Vitoria-Gasteiz
+34 945 161 830
administracionmontehermoso@vitoria-gasteiz.org
www.montehermoso.net